

Noaúa!!

www.noaúa.com



Errausketaren aurka,
atez ateko sistemaren alde



Jaietako sua pizteko garaia da



ALKARTASUNA

Usurbilgo Baseritarren Kooperatiba

ondo pasa San Joanak!!

100
URTE



**bulegorako altzariak
eta hornidura**
**paper dendarako
artikuluak**

Ugaldea Industrialdea, 11
Tfno.: 943 365 892 · Faxe: 943 371 686
20170 USURBIL (Gipuzkoa)
manpel@manpel.com · www.manpel.com



Albisteak iruditan !!

Ostegun honetan bukatuko da Plis, Plas, Txalo ta Jolas

Beti bezala, harrera ederra izan zuen Plis, Plaseko ekitaldiak Zubietan. Aurten, Patxin eta Potxin pailazoak izan dira Zubietako frontoian bisitan izan direnak. Haur zein heldu, dantza batean ibili ziren.

Santuenea, Aginaga, Zubieta eta Kalezar bisitatu eta gero, ostegun honetan amaituko da Plis, Plas, Txalo ta Jolas egitaraua Usurbilgo frontoian. Txan Magoaren saioa izango da aurtengo Plis, Plaseko azkena. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da magia ikuskizuna.



ZUBIETAKO FRONTOIAN IZAN ZIREN LEHENGO ASTEAN
PATXIN ETA POTXIN PAILAZOAK.

Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkarte BORDABERRI 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkarte@noaua.com - www.noaua.com

Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkarte@noaua.com

Aldizkariako koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com

Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkarte@noaua.com

Publizitatea: Intza Salsamendi, publicitatea@noaua.com

Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbiet, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustín Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Mainer Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.

Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti,
Intza Salsamendi, Alaitz Aizpurua.

Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.

Banaketa: Miren Azkonbieta, Txelo Vidal eta Kerman Errekondo.

Tirada: 2.600 ale

Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza, Zirkuitu Ibillidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Aurkibidea

ORNITORRINKUS, HITZ ETA DOINU _____ **5. OR.**

ATEZ ATEKO BILKETA SISTEMA _____ **6. OR.**

SAN JOANETAKO JAI EGITARAU _____ **10. OR.**

BRUÑO AHIZPEN ATXILOKETA _____ **14. OR.**



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

LATAILLADE     **ITURGINTZA**

GASA
BEROKUNTZA
MANTENIMENDUA ETA
KLIMATIZAZIO INSTALAKUNTZAK

Aritzitxoa 8. beheak - 943 363 348 - 609 888 021

txirriStra

KONTSEJUZARRA 13
943 360 466

pintxoak
ogitaratekoak
piatek konbinatuak

TABERNA



ARITZ GORRITI

Itoko ote gara?

Jaien denboraldia hasi berria den honetan, eta ekainaren 23a gerturutzen doan neurrian, San Juanak ospatzen dituzten hainbat lekutako zafantza izan liteke honakoa; San Juan bezperako sua piztu ahal izango ote da? Norbere barrua garbitzeko, su inguruan dantza egin edota haren gainetik salto egitea baino gauza hobetik ez omen dago. Baina esandakoa, aurtengoan halakorik egitea zorte kontua baino ez da izango; eguzki izpiren bat atera orduko estaltzen baita zerua eta euritan hasi, aspaldi tanta bat bera ere bota izan ez balu bezala. Ibaietan ur emaria handituta etorri da hainbat aldiz, azken asteetan.

Iragarpenak ez dira hobeak gainera. Diotenez, ekainean uholderen bat izan ohi den kasu askotan, segidan datorren uda ere bustitik joan da. "Tenporek" aurten go udarako ere euria iragarri omen dute. Abuztu erdialdera arte, giro nahasia izango omen dugu. Nahasia diot, eta ez txarra. Beste gai guztietan bezala, eguraldi

kontuetan ere, denen gustagarria ez baita, ez egun eguzkitsua ezta egun grisa ere. Iragarpen beltzak dira, batez ere kostaldean hondartza eta inguruetan kokatzen diren denda edota tabernentzat. Kexu izango dira Kantauri itsasoan bainutxoa hartu, eguzki izpien azpian goxo-goxo egon edota jarraian, izozkiren bat dastatu nahi dutenak. Gustura aldiz, beroa desatsegin egiten zaieneztat edota garai honetan alergiaren bat dutenak. Batzuek ezinagatik, eta besteak, gustura egonik ere, martxa honetan negu giroan itoko gara. Ia behintzat erdi eta erdi egiten duen, denen gusturako. Eta oporretan, norbere planetan eguraldiak ahalik eta gutxien eragin dezala. Pazientziaz hartu, eta eguraldia ezin badugu geure modura moldatu, geuk aurre hartu eta egokitu beharko ditugu egin nahi ditugun planak, egunean eguneko girora. Kasu batzuetan zein bestetan, udarekin batera oporrak hastear dituzuenok ondo pasa!

Aitor Landaluze - Luis Aranalde - Aritz Gorriti - Imanol Ubeda - Nerea Zinkunegi - Idoia Torregerai - Joxe Piñas - Unai Agirre

ASKO DUGU ESATEKO

NOAUA! astekaria, tren eta autobusen ordutegia, noaua.com, kultur ekitaldien sustapena, euskararen normalizazioa, urteko egutegia, beka deialdiak, NOAUA! Txiki, Plis, Plas, Txalo eta Jolas, ...

Askoko dugu esateko. Baina zure laguntza ere premiazkoa da.

Bazkide egin zaitez!

36 euro urte osorako

Izena: _____
 1.Abizena: _____
 2.Abizena: _____
 Helbidea: _____
 Herria: _____
 Telefonoa: _____
 E-posta: _____
 Kontu korrantea:

Orrialdea bete eta NOAUA!ra ekarri edo telefonoz deitu: 943 360 321.

teilatua eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE



Obaba kalea 29 · ASTEASU
 © 943 69 68 52 · 620 800 186

Kale nagusia, 10
 Telf: 943 37 33 48
 943 37 09 13

Okindegia - Gozotegia

LABE-GOXO

Patri Jatetxea



K/nagusia 14. © 943 362 725

Ornitorrinkus, hitz eta doinu

Maiatzaren 31n iragarrita zegoen Ornitorrinkus izeneko ikuskizuna. AHT Gelditu! plataformak egun horretan antolatu zuen makrojaialdiaren aurrean, hitzordua ekainaren 21era atzertzea erabaki zen. Iritsi da eguna, musika garaikidea, bertsoak eta musika esperimentalak uztartzen dituen ikuskizunaz gozatzeko eguna. Larunbat honetan, gaueko 22:30ean, Dema plazan.

Zer da Ornitorrinkus? Musika garaikideak, musika esperimentalak eta bertsoak elkarrekin osaturiko hotsen eta ahotsen emanaldi berritzailea.

Emanaldiko oinarriak hauek dira:

- Judith Montero, saxofoi sopranoa, altua, tenorra eta baritonoa.
- Maialen Lujanbio, testu idatziak,

bertsoak eta ahotsa.

- Xabier Erkizia, musika esperimentalak, soinuak.

Musika garaikideak eta bertsoak, musika esperimentalaren laguntzarekin eta euren modu arruntetatik areago joanda, formaz eta mamiz zer lor dezaketen arakatzeko. Elkarrekin, esperimentazioaren eta elkarlanaren bidez hizkuntza berri trinko bat bilatzeko.

Emanaldiaren kontzeptu nagusia "ornitorrinkoa" da, proiektuaren bizkar hezurra. Beste animalia guztien familia eta genero eredueta kabitu ezin litekeen animaliatxoak. Bere buruaren logika propioa duena. "Ornitorrinkus" ere, formaz, beste bertso edo musika esperientziekin antzik ez duen proiektua da. Hiru espresio bide orain artean urrun bate-



LARUNBATEAN, GAUEKO 22:30EAN
HASIKO DA ORNITORRINKUS
SAIDA DEMA PLAZAN.

an lotzen dituen. "Ornitorrinkus" mamiz ere, ornitorrinkoaren sinboloaren baitatik ari da: izatearen, izateko ausardi eta askatasunaren, eta izan-ezinen inguruko gaiak dira.

NOAUA! Kultur Elkarteak antolatu du larunbat honetako ikuskizuna, Udalaren laguntzaz. Sarrera, doan.

Jende ugari ikasturte amaierako kontzertuetan

Egun hauetan, ikasturtean zehar ikasitakoa erakusteko aukera dute Zumarte Musika Eskolako ikasleek. Astelehenean hasi ziren ikasturte amaierako kontzertuak, talde instrumentalaren erakustaldiarekin.

Asteartean, ordea, Musika Txokoko ikasleak izan ziren protagonistak. Sutegin egin zen saioan, abesbatzako kideek ere hartu zuten parte. Asteazkenean, talde instrumental gehiago aritu ziren. Ostegun honetan amaituko da Zumarte Musika Eskolak antolatu duen kontzertu sorta, Musika Txokoko ikasleek Udarregi ikastolan eskainiko duten saioarekin. 17:15ean hasiko da osteguneko kontzertua.



ASTELEHENEAN, GAINEZKA EGON ZEN SUTEGI. IRUDIAN, TXISTU TALDEKOAK.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

ANTXETA taberna-jatetxea

ogitartekoak
eguneroko menua
plater konbinatuak



EGUZKITZA, 4 USURBIL · 943 370 344

Badator atez ateko bilketa sistema

Udal ordezkariak auzoz auzo ari dira herritarren zalantzak argitzen

Udazkenean martxan jarriko den hondakinen atez ateko bilketa sistema berriari begira, udal ordezkariak herritarrekin biltzen hasiak dira. Aste hasieran, Aginagan burutu zuten lehen bilkura. Gaiari buruzko informazioa eskaintzeaz gain, deialdira agertu ziren herritarrek haien zalantzak eta galderak planteatzeko aukera izan zuten. Datozen egunetan, bilera gehiago egingo dira. Aurrerago ere, udako oporraldiaren osterako iragar-tzen dute informazio eta sentsibilizazio kanpaina sendoa, atez ateko bilketa sistema martxan jarri baino lehen.

Aste hasieran, Aginaga, ludoteka zerbitzua eskaintzen den gunea izan zen, udazkenean martxan jartzeko asmoa dagoen hondakinen atez ateko bilketa sistemari buruzko informazioa eskaintzeko lehen biltokia. Bertaratu ziren udal ordezkariak eta herritarrek informazioa elkartrukatzeko aukera izan zuten. Zalantzak argitzeko tartea ere hartu zuten eta gaiak interesa pizten duela argi geratu zen.

UDAL ORDEZKARIAK

“Ordu-tegi batek adieraziko dio herritarri zer hondakin mota atera behar duen etxe atarira”

Aginagako hitzorduaren ostean, bilera gehiago egingo dira datozen egunetan, Santueneko Auzo Elkartearen, Sutegin edota Zubietako frontoi atzeko lokalean.

Udazkenetik aurrera, aldaketa

Aginagako bilkuran jakinarazi zenez, alde zehaztu eta finkatuko den ordutegi batek adieraziko dio herritar bakoitzari, zer hondakin mota atera behar duen etxe atarira, aste-ko egun eta ordu konkretuetan.



ASTELEHENEAN AGINAGAKO LUDOTEKAN IZAN ZIREN ATEZ ATEKO BILKETA SISTEMA AZALTZEN. OSTEGUN HONETAN, SANTUENEAN ETA SUTEGIN ESKAINIKO DITUZTE HITZALDI BANA.

Hala, batzuetan materia organikoa, besteetan, papera, kartoia... atera beharko dira, beira izan ezik. Aipatu materiala, orain arteko ontzietan biltzen jarraitzea aurreikusten baita.

Hain zuzen, atez ateko bilketa sistema martxan jartzen den egunetik aurrera, orain arte leku askotan ikusi ditugun zabor ontziak desagertuko direla gogoratu beharra dago. Aipatu bezala, beira biltzen duen eduki ontzi berdea izan ezik.

Bildutakoa, konpostazera

Herritarrek etxean sortzen dituzten hondakinak biltzeko zabor ontziak banatuko dira bizitoki guztietan, bakoitza zenbaki identifikagarri batekin. Hartara, hondakinak biltzera doanak herritar bakoitzak zaborrari dagozkion etxeko lanak ondo egiten dituen edo ez jakin ahal izango du. Egin beharrekoa ondo badago, arazorik ez. Aldiz, hondakinak oker bereizten badira, huts egin duen herritarra bere jarrera zuzentzera bultzatuko litzateke, berriz halakorik egin ez dezan.

Bereizitakoa bilduta, bildutakoa konpostatzeko asmoa dago. Hondakinak tratatzeko modu honi dagokionean, formula ezberdinak aztertzen ari da Udala. Aginagan izan zen bilkuran aipatzen zenez, ahal den neurrian, etxeko konpostajea bultzatu nahiko litzateke. Horretarako, argitu zenez, konpostagailuak banatu eta gaiari buruzko ikastaroak antolatuko lirateke. Tamaina handiagoko planten aldeko apustua ere egiten du Udalak. Zubietan eta agian beste eremu batzuetarako ere baliagarria izan litekeen

Atez ateko sistemari buruzko azken hitzaldiak

EKAINAK 19, OSTEGUNA
18:30etan Santuenea Auzo Elkartearen eta 20:00etan Sutegin.

EKAINAK 28, LARUNBATA
17:00etan Zubietako frontoi atzeko lokalean.

Antolatzailea: Usurbilgo Udala.

konpostaje komunitarioa delakoa bultzatu nahi da. Kasu horretan, etxe partikular bakarrak ez, etxe multzo batek sortzen duen materia organikoari irtenbidea ematea ahalbidetuko litzateke.

Ondo bereizi eta ondo konpostatzea lortzen bada, beste materialen birziklatze-maila ere haztea lortuko litzatekeela jakinarazi zen. Eta gaur egungo egoera guztiz irauli, atez ateko sistemari buruzko lehen bilkuran gogorazi zen moduan; “gaur egun, hondakin %90 birziklagarria da, baina %80a zabortegira botatzen ari gara”.

Udala eta herritarrak, elkarlanean

Hondakinak bildu eta tratatzeko, herriaren itxura kontuan hartu beharra dago; Udalak abian jarri nahi duen egitasmoa ez baita modu berean aplikatuko kaxko inguruko etxebizitzetan edota eraikinak sakabanatuagoak dau-

den zonalde edo eremuetan.

Udako oporraldiaren ostean, irailetik aurrera, atez ateko bilketa sistema definitzen eta diseinatzen joateko asmoa du Udalak.

UDAL ORDEZKARIAK

“Gaur egun, hondakin %90 birziklagarria da, baina %80a zabortegira botatzen ari gara”

Prozesua ordea, herritarrekin batera burutu nahi du. Horregatik, parte hartzera deitzen dituzte herritarrak. “Herriak berak proiektua berea bezala hartu behar du”, adierazi zen. Informazio eta sentsibilizazio kanpaina sendoa iragarri du Udalak, irailetik aurrera begira.

Lekukoa hartuz, bere garaian halako esperientziak martxan jartzeko

Herrialde Katalanetan egin zuten moduan.

Hain zuzen, hango 70 bat udalerritan martxan da atez ateko bilketa sistema eta hondakinak tratatzeko konpostajearen aldeko apustua ere egina dute. Kasuan kasuko emaitzak desberdinak izan arren, esperientzia guztiek argi utzi dute, irauli egin dela hondakin balantza.

Modu nabarmenean hazi da, birziklatze-maila. Aldaketa horretako giltzarri nagusia, materia organikoaren bilketan dago. Kalkulatzen denez, sortzen dugun zaborraren %40-tik gorako zatia, organikoa baita.

Martxan jarri ostean, sortu izan diren oztopoak gainditze aldera, Herrialde Katalanetako udalerrri asko egitasmoa hobetze edo fintze prozesuan murgilduta daude. Aginagako lehen bilkuran udal ordezkariak gogoratzen zutenek, kasu bakar batean ere ez dute egitasmoan atzera egin.

Donostiako manifestaldian bildu zirenek erraustegiari ezetz esan zioten, beste behin ere

Erraustegiaren aurka eta hondakinak kudeatzeko bestelako alternatibak daudela aldarrikatzeko bi mila herritar inguru bildu ziren larunbatean Donostian izan zen manifestaldian.

Gipuzkoako hiriburu erdiguneko kaleak zeharkatu zituen manifestaldiak. Erraustegiaren aurkako herri plataformen koordinadorak antolatu zuen ibilbidearen amaiera ekitaldian, hondakin atez ateko bilketa sistema martxan jartzea eskatu zen beste behin. Halakorik egiteko arrazoi ugari aipatu zituzten Boulebarreko kioskoko mikrofonoan ahotsa hartu zutenek; datozen belaunaldiei begira, ingurunea zaintzeko beharra edota erraustegiak eragin ditzakeen gaixotasunak horien artean. Erraustegiak bultzatzen duen gizarte eredua, mugarik gabeko kontsumismoarekin eta



ZUBIETAR ETA USURBILDAR ASKO IZAN ZIREN MANIFESTAZIOAN.

herritarren kontzientzia ezarekin lotua dagoela aipatu zen. Aurreko manifestaldi batean entzun zen abestiak zaborrarekin zer egin behar

genuen argi erantzuten zuen; “murriztu, birziklatu eta berrirabili”. Kantatzeaz gain, manifestaldian behin eta berriz entzuten zen aldarria.

Berrerabiltzearen garrantzia

Jende askoren arreta piztu zuen bigarren eskuko azokak. San Markosko mankomunitateak antolatu zuen ekimen honetan, Udarregi ikastolako talde batek hartu zuen parte. "SOS Balcanes" irabazi-asmorik gabeko elkarteak ere hurbildu zen Dema plazara. Antolatzaileak pozik dira herritarren partehartzearekin.

Usurbilgo eta eskualdeko lagun askok hartu zuten parte bigarren eskuko azokan, bigarren eskuko objektu asko bisitarien eskura jarritz: arropa, pitxiak, altzari berreskuratuak, dekoraziorako artikulak, kirol materiala, liburuak, informatika

materiala, jostailuak, eta baita antzinako gauza eta bildumetako artikulak ere. Erabiliak izatea eta egoera onean egotea ziren ezinbesteko baldintzak.

Poltsa berrerabilgarriak opari

Informazio puntu bat ere jarri zuen San Markosko mankomunitateak, eta bertan hiru informatzaile izan ziren, bertaratzen zen jendeari hondakinen prebentzioarekin lotutako ekimenen berri emateko.

Informazio puntuan bertan, poltsa berrerabilgarriak banatu ziren, doan, gaiaren inguruan interesa agertu zuten herritarren artean.

Azokan parte hartu ezin eta intere-



DEMA PLAZAN EGIN ZEN
BIGARREN ESKUKO AZOKA.

satuta bazaude, jakin ezazu ekimen honek jarraipena baduela Interneten, webgune honetan hain zuzen: www.merka2sanmarcos.org

Erlezaintzari buruzko hitzaldia

Elias Otegi hizlariak erlezaintzari buruzko hitzaldia eskainiko du larunbat honetan Sutegin. Erlezaintzarekin lotutako produktuei buruz hitz egingo du eta polinizazioa ere aipatuko du hitzaldian. Elias Otegiaren hitzaldia Sutegin izango da eta goizeko 9:30ean hasiko da.

Alkartasuna Baserritar Kooperatibak 100 urte bete ditu eta hainbat jardunaldi antolatu ditu. Aurreko larunbatean, esate baterako, sagastien zaintzari buruzko hitzaldia egin zen Sutegin.

Euskara ikasi dutenek ekainaren 30a arte dute dirulaguntza eskatzeko epea

Euskara ikasi dutenentzako dirulaguntzak banatuko ditu Udalak. Oinarriak ekainaren 2ko Aldizkari Ofizialean (GAO delakotan) argitaratu ziren:

<https://ssl4.gipuzkoa.net/euskera/gao/2008/06/02/e0806360.htm>

Aurtengo deialdian, iazkoarekin alderatuta, berrikuntza nabarmena egon da. Izan ere, Udaletik oso garrantzitsutzat jotzen da herritarrek euskara ikastea.

Horrexegatik hain zuzen ere, 2007-2008 ikasturtean herritarrei euskara ikasteko ematen zaizkien

dirulaguntzen kopuruak nabarmen igo dira:

-Euskara ikasleek: matrikula-kostuaren %80a jasoko dute (iaz %60a).

-Euskara ikasleak, 12 urtetik behe-rako seme-alabak dituzten gurasoak: matrikula-kostuaren %100a (iaz %80a).

-Euskara ikasleek (langabetuek): matrikula-kostuaren %100a (80a).

-UEUko ikasleek: matrikula-kostuaren %60a jasoko dute.

Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 30ean amaituko da (egun hau barne).

CLIMATA-T
klimatizazio orokorra

687 858 390
climata_t@yahoo.es

ARRAINDEGIA
PELLO

Puntapax Kalea,7
Tif 36 21 64
USURBIL

URDAINTZI S.L.
erakuntza

943 367 264
943 435 475
943 435 476

BORDATXO
edaritegia

PINTXO BEREZIAK

Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42



N!!!

san joanak kalezar
gehigarri berezia **08**



egitaraua



Ekainak 20, Ostirala

- 18:00 Buruhandiak
- 19:00 Auzotarren arteko herri kirol lehia
- 23:30 Erromeria Ostolaza eta Pujanarekin

Ekainak 21, Larunbata

Oilasko Biltzaileen Eguna

- 06:00 Gosaria eta Oilasko Biltzaileen irteera
- 09:00 Oilasko Biltzaile Txikien irteera
- 14:00 Oilasko Biltzaileen bazkaria
- 16:00 Mus Txapelketa
(inskripzioa 16:30ean itxiko da)
- 18:00 Herriko dantzariak
- 19:00 Buruhandiak
- 19:30 Tortila Patata Lehiaketa
- 20:00 Futbol partida Harane futbol zelaian
- 23:00 Imuntzo eta Belokirekin dantzaldia

Ekainak 22, Igandea

Umeen Eguna

- 10:00 V. Ume Krosa
- 11:30 Jolasak
- 16:30 Tailerrak
- 18:30 DJ Burunda

Ekainak 23, Astelehena

San Joan Bezpera

- 15:00 San Juan eskearen irteera
- 22:00 San Juan sua
- Ondoren Eskearen jarraipena

Ekainak 24, Asteartea

San Joan Eguna

- 11:00 Meza Nagusia
- Ondoren Toka
- 13:00 Gorritiren showa
- 19:00 Soka Dantza
- Ondoren Sardina eta sagardo dastaketa,
Saizar sagardotegiaren eskutik

Oharra: Jai Batzordea ez da jaietan gerta daitezkeen istripu edo ezbeharrez arduratuko.





LARUNBATEAN, FUTBOL PARTIDA HARANEN

Jai egitarauak ez dakar. Baina aurten ere izango da futbol partida. Iaz bezala, Haranen egingo da auzotarren arteko futbol partida. Larunbatean, arratsaldeko 20:00etan hasiko da.

Gauetz, Imuntzo eta Beloki trikitilariak arituko dira ordu txikiak arte.



FUTBOL PARTIDA JOKATUKO DUTE LARUNBATEAN, HARANE FUTBOL ZELAIAN.

**ANDER
ARANZAZISTROKI**

**industri
garbiketarako
sistema eta
produktuak**



© **667 680 236**

Ondo pasa San Joanak!!



Goiz Argi etxea, 37 kalea

Tel: 943 36 50 95

Hugikama: 609 068 111



ALUAL, S.L.

*Ugalde
industrialdea
20 zenbakia - behea
Telf.: 943 370 506
Faxa: 943 370 550
20170 USURBIL*

*Aluminiozko aroztegia
Zubi termikoaren hausturarekin
Egurraren imitazioa
Poliuretanozko Belkopur leihoak*

Josue
Aranzazistroki

**IGELTSERITZA
eta
PINTURA**

Juan Jose enea, 6 Telf: 606 37 21 05
Kalezar

Ondo pasa
Sanjuanak!

SAIDA



*ile apainketa
betileen tintaketa*

prezio bereziak jubilatueri!

Kalezar · 943 372 952



**LARRAÑAGA
PLASTIKOAK E.A.**

**INDUSTRIARAKO
PIEZA MOLDAKUNTZA**

Ugaldea industrialdea, 1. USURBIL
Telf: 943 36 14 46 / 943 37 33 05

Fax: 943 37 70 01

admon@larranagaplasticos.com

Asteazkenean abiatuko dira Granollersera kadete eta jubenil mailako eskubaloi jokalaririk

Duela aste batzuk iragarri genuen bezala, Usurbil KE taldeko hiru taldek Granollersen (Katalunia) jokatu den nazioarteko eskubaloi txapelketan hartuko dute parte: kadete mailako mutilak, jubenil mailako mutilak eta jubenil mailako neskek. Guztira, 45 lagun joango dira Granollersera, 37 jokalaririk eta 8 entrenatzaile eta arduradun. Aurreko astean, eskubaloi festan ederki pasa zuten denek; hori dela eta, zapore onarekin abiatuko dira Katalunia aldera.

Ekainaren 25ean abiatuko dira Kataluniara eta ekainaren 28an bueltatuko dira. Tartean, eskubaloi partida ugari jokatu beharko dituzte. Nazioarteko txapelketa denez, atzerriko taldeen aurka neurtu beharko dituzte indarrak. Baina partehartzea da garrantzitsuena eta, horrekin batera, egun atseginak pasatzea. Dagoeneko maila ona erakutsi dute amaitu berri den denboraldian, beraz, orain bidaiaz eta eskubaloiaz gozatzeko garaia da.

Eskubaloi festa ederra

Asier Salsamendi Usurbil KE taldeko kideak aipatu digunez, pasa den larunbateko Eskubaloi Festan ederki pasa



LARUNBATEAN GIRO ONA IZAN ZEN ESKUBALOI FESTAKO PARTIDETAN.

zuten jokalariek, beteranoek nahiz gurasoek.

Arratsalde partean, partida ezberdinak jokatu ziren guraso, egungo jokalaririk eta jokalaririk ohien artean. Aukeran, guraso gutxi izan ziren animatu zirenak, baina giroa primerakoa izan zen.

Gauetz, 100dik gora lagun bildu ziren Saizar sagardotegian. Eskubaloi Festako sariak banatu zituzten afalostean. Denboraldian zehar lortu diren trofeoak ere banatu ziren.

Kadete mutilen taldeak eta jubenil mailako neska taldeak Gipuzkoako Kopa jaso zuten. Sektoreko Kopa ere irabazi du aurten jubenil mailako neska taldeak eta sari hori eman zitzaient.

Horretaz aparte, opari ugari banatu zituzten jokalaririk artean.

Akabo denboraldia. Granollerseko bidaia eta gero, oporrak hartuko dituzte jokalaririk eta entrenatzaileek. Ikasturte berriarekin batera bueltatuko dira entrenamenduak.

Usurbilgo XXXVI Pilota Txapelketa

EKAINAK 20 OSTIRALA, 22:00

Final-erdiak, jubenilak

Oiarzabal-Ulangu (Andoain)
Asteasuinzarra-Áraico (Zaramaga)

Nagusiak

Erroizenea-Aranalde (Añorga)
Arraztoa-Landiribar (Burlata)

EKAINAK 21 LARUNBATA, 19:00

Final-erdiak, jubenilak

Zabaleta -Martin (Goizueta)
Kina-Biain (Zumarraga)

Nagusiak

Elurbe-K. Galarraga (Bidegoian)
Alegria-Iriarte (Leitza)

Usurbil-Kuba, judo topaketak Oiardo kiroldegian

EKAINAK 19, OSTEGUNA

10:00-11:30 Sutegin, prestakuntza fisikoari buruzko hitzaldia. Hizlaria: Raquel Hernandez.

12:00-13:30 Aurreko saioaren adibide praktikoa kiroldegiko pistan.

19:30-21:30 Kubako emakumezko judo selekzioaren saioak kiroldegian.

EKAINAK 20, OSTIRALA

10:00-13:00 Hitzaldia Sutegin: "Entrenamenduaren mediku kontrola proba espezifikoa". Hizlaria: Reynaldo Chavez, Kubako selekzioaren medikua.

17:00-19:00 Mahai ingurua Sutegin:

emakumeen kirola.

19:30-21:30 Kubako eta Euskadiko emakumezko judo selekzioaren kiroldegian.

EKAINAK 21, LARUNBATA

18:00-19:30 Euskadi-Kuba emakumezkoen judo topaketa Kiroldegian.

EKAINAK 23, ASTELEHENA

10:00-13:00 Hitzaldia Sutegin: Kubako emakumeen kirol egoera. Hizlariak: Ronaldo Beitia eta Juan Martinez Mesa, Kubako olinpiar selekzioaren entrenatzailea eta psikologoa, hurrenez hurren.

Alcala-Meco espetxean dira Bruño ahizpak

ETari beren borondatez ordaindu ziotela dio Baltasar Garzon epaileak. Arrazoi horregatik, Blanca Rosa Bruño Azpiroz eta Maribel Bruño Azpiroz ahizpak baldintzarik eta bermerik gabe espetxeratzeko agindu zuen Espainiako Auzitegi Nazionaleko epaileak. Atxilotuen defentsak akusatua aske uzteko edo tamainako diru bermea jartzeko eskatu bazuen ere, fiskalak behin-behineko baldintzarik gabeko espetxeratzeari esker esker zuten. Alcala-Meco (Madril) espetxean dira Aginagako ahizpak.

Akusazioaren oinarrian maiatzaren 20an Bordelen (Frantzia) egindako polizia operazioan ETari atzemandako dokumentazioa dagoela argudiatu du epaileak.

Bruño ahizpek Garzon epailearen aurrean esandakoen arabera, bi gutun jaso zituzten 2003. eta 2005. urteen artean. Gutun horietako lehenengoan 120.000 euro eskatu omen zizkien ETAK eta bigarrenengoan 30.000 euro. Bi gutunak suntsitu egin zituztela adierazi zuten bi ahizpek Garzonen aurreko deklarazioan, Efe agentziaren arabera.

Epaileak ziurtatzen jo du Maribel eta Blanca Rosa Bruñok ordainketaren kopurua jaistearen negoziatu zutela eta



ASTEAZKENEAN ETA OSTEGUNEAN ELKARRETARATZEAK EGIN ZIREN USURBILEN.

erakunde armatuak jaso egin zituela 6.000 euroak.

Horretaz aparte, Orion bizi diren bi ahizpek ETArekin duten "gertutasun ideologikoa" sumatzen dela ondorioztatzen du Auzitegi Nazionaleko epaileak. Autoan aipatzen du bi ahizpek, 2005eko martxoan, Aukera Guztiak plataformaren aldeko sinadura eman zutela eta Maribel Bruño EH taldeko hautesle zerrrendako kidea izan zela 1999an.

Aralar: "Astakeria juridikoa"

Bruño ahizpak espetxeratzeari "astakeria juridikoa" dela uste du Aralarrek.

Garzonek ideien kriminalizazioan urrats bat gehiago egin duela uste du, "ideologikoki ETarengandik hurbil" daudela argudiatuz espetxeratu dituelako Bruño ahizpak.

Aralarrek dioenez, Bruño ahizpak "ETAren estortsioaren biktimak izan dira lehenengo, eta orain Espainiako Justiziaren biktimak dira". Alderdi abertzaleak elkartasuna adierazi die Bruño ahizpei eta haien "berehalako askatasuna" eskatu du.

Usurbilen bezala, Orion elkarretaratzeak egin ziren aurreko astean, Bruño ahizpak askatzeko eskatuz.

Usurbilgo EAK elkartasuna azaldu die senideei

Blanca Rosa eta Maribel Bruñoren senideei elkartasuna adierazi nahi die Usurbilgo Eusko Alkartasunak. Garzon epailearen ebazpena zalantzan jartzen du gutun bidez Usurbilgo EAK, eta bi ahizpen askatasuna eskatzen du noaua.com webgunean idatzitako oharrean. Hauxe oso-osorik, EAren gutuna:

"Bruño Azpiroz ahizpen espetxeratzeari dela-eta gure iritzia plazaratu nahi dugu. Lehenik gure hurbiltasuna adierazi familiarrei, batez ere bere gurasoei; aitari. Andres Bruño, Usurbilgo Eusko Alkartasunaren sorreran eta gaurdaino erreferente etiko eta politikoa izan dugu. Erreferente etikoa zeren, orain

bere alabei akusatzen dieten egoera berdinean, ETari planto egin zion, txantaiari men egiteari ukatu da beti. Erreferente politikoa zeren, udal instituzioen demokratizazioan parte hartze zuzena izan zuen alkate izanik, Bergarako alkate taldea osatuz; eta ondoren, alderdi jeltzalearen errejenerazioan, Eusko Alkartasuna sortuz. Bigarrenik, Garzon epailearen ebazpen berri hau kuestionatzen dugu. Ohikoa dugu entzutea terroristek ez dutela sinesgarritasunik, torturak salatzen dituztenean manualeko jokamoldea dela. Aitzakiaz erabili duen eskutitz hori, ez ote da trokelean egindako bat?

Epaile honen diskrezionalitatea salatzen dugu, oinarri garbirik gabe hartzen dituen ebazpenak zalantzan jartzen ditugu. Hirugarrena. ETA salatzen dugu. Bere existentziaren beste sufrikario bat gehiago dugu egoera hau. ETA da egoera honen kausa eta erantzule nagusia. ETAren txantaia jasotzen duten enpresarietako gure elkartasuna adierazten diegu, eta berriro ere, ETari bere desagerpena eskatzen diegu euskal herritarren etsaierik nagusia delako. Azkenik, auzi hau lehenbailen argitzea eta espetxeratuak ahalik eta lasterren etxean izatea desira dugu, Usurbilgo Eusko Alkartasuna".

“Estortsioaren” eta “justiziaren” biktimak

Egun txarrak pasa dituzte Bruño sendikoeak. Hala adierazi zuen Andres Bruñok asteartean Orioko Udaletxean egin zuen agerraldian. Harekin batera izan ziren bere beste alaba bat eta Andres Bruño e Hijos enpresaren abokatua. Joan den astean atxilotu zituzten bi alabak eta aitaren iritziz “estortsio baten biktimak” dira eta baita “justiziaren biktimak” ere. Jasotako elkartasun mezuak eskertu eta bi alaben askatasuna eskatu zuen: “Etxean behar ditugu, gure ondoan, eta enpresaren zuzendaritzan eta kudeaketan”. Hauxe gutuna oso-osorik.

“Nire bi alaba, Blanca eta Maribel, atxilotu eta ondoren kartzelan sartu dituzte. Familia guztia oso egoera gogorra ari gara pasatzen. Hori dela eta erabaki dut nire sentimenduak jende aurrean azaltzea.

Azken 28 urteotan era guztietako estortsioak eta presioak sufritu behar izan ditut. Estortsio horien lehen aipamen idatzia Usurbilgo Udalbatzak hartu zuen erabaki baten aktan agertzen da, 1980ko irailaren 18an, ni Usurbilgo alkate nintzela, EAJ alderditik.

Usurbilgo Udalaren erabaki hartan salatu eta gaitzetsi egiten nuen modu publikoan ni eta nire familia osoa sufritzen ari ginen estortsioa.

Orain, 28 urte eta gero, berriro agertu behar jende aurrean, beste tortura hau salatzeraz. Nolako den bizitza!

Telebistaren aurrean nongoen, harrituta, kanal batean bai eta bestean ere bai behin eta berriro ematen ari ziren irudien aurrean, kamerak, fokuak, kazetariak, poliziak... Terrorista talde bat atxilotzen ariko balira bezala. Baina nola? Ez da posible, atxilotutakoak nire alaba Blanca eta Maribel dira-eta.

Ez dakit zer lortu nahi duten gehiegikeria mediatiko izugarri honen bidez; baina badakit min handia eman didatela. Mina, ezina eta batez ere desilusioa.

Ez dakit inork sumatu ere egin ote dezakeen zer den 28 urteko bidegurutz hau. Lehenengo, dei bat, hurrena gutun bat, gero beste bat... Batzuk gogorrak, besteak ez horrenbeste, edozein kasutan beti gogorregiak jasotzen dituenaren-



ORIKO UDALETXEAN EGIN ZUEN AGERRALDIA ANDRES BRUÑOK, USURBILGO ALKATE OIHAK. ARGAZKIA: KARKARA.

tzat. Kasu guztietan gauza bat zen garbia, gutunek zeukaten helburua: estortsioa, eta horren aurrean norbere borondateak ez dauka tokirik.

Oso ondo ezagutzen ditut alabak, badakit zein diren haien balio moral, etiko eta familiarak, eta horrexegatik guztiz konbentziturata nago errugabeak direla, batak bezala besteak horrelaxe agertu zuten Guardia Zibilaren eta Garzon epailearen aurrean.

Nabarmendu nahi dut Blanca eta Maribel, lehenengo eta behin, estortsio-saio baten biktimak direla, eta bigarrenik Justiziarenak. Nire bi alabek ezker abertzalearen inguruarekin zerikusirik ez dutela konprobatu nahi izan ez duen justizia batenak. Eta erraza zeukaten, nahikoa zuten, horretarako, jakitea zein sindikatutan dagoen afiliatuta aspalditik Maribel eta zer jarrera duen sindikatu horrek gai hauetan, nahikoa zuten konprobatzea Blancak azken hauteskunde orokorretan botoa eman zuela.

Inoiz egon baldin bada nolabaiteko gertutasuna, Aukera Guztiak eta Euskal Herritarrok plataformak sortu zirenean bezala, testimonial hutsa besterik ez da izan.

Kontua da Blanca eta Maribel gaur kartzelan daudela, baldintzarik gabeko egoeran, nahiz eta haiek beren burua errugabetzat jo zuten.

Gure bi alaben kartzelaratzek ematen digun min pertsonal eta familiar ikaragarriaz gain, zenbateko kaltea egiten dio enpresari? Nire andreak eta biok duela

50 urte baino gehiago sortu genuen enpresa familiarrari?

Zentzurik gabeko egoera honek konponbidea eskatzen du, baina lehenbailehen.

Biktima bihurtzen gaituen historia triste honek bide luzea urratu du dagoeneko, 28 urte, eta nik historiaren lehen momentutik salatu egin nuen estortsioa, nahiz eta orduan ez izan batere erraza, 1980ko egoerak ez zuten zerikusirik handirik oraingo egoerarekin.

Ezin dut onartu gure alabak atxilotu eta kartzelan sartzea izan daitekeenik nire gurutz-bide luze horri eman zaion erantzuna.

Bukatzeke, eskerrak eman nahi dizkiegu momentu gogor hauetan beren elkartasuna azaldu digutenei (eta asko izan dira), haien laguntza gabe ia ezinezko izango genuen-eta egoerari aurre egitea.

Azkenik, elkartasuna adierazi nahi diet gaur egun estortsioaren mehatxupean bizi diren guztiak.

Tortura horri, gaurtik aurrera, guk bizi dugun amesgaiztoan erortzeko arriskua gehitu beharko diote egoera horretan daudenei; izan ere, garbi dago, gu “bigarren mailako biktimak” garela.

Nolanahi ere, garbi gera bedi gu borroak behintzat ez garela.

Blanca eta Maribelen berehalako askatasuna nahi dut eta horrelaxe eskatzen dut. Etxean behar ditugu, gure ondoan, eta enpresaren zuzendaritzan eta kudeaketan”.

Jaiak eta aldarrikapenak bat egin zuten UEMA egunean

UEMA Eguna ospatu zen larunbatean Azpeitian, "Sustraiak galtzen ez utzi, euskarari eutsi" lelopean. Euskara nagusi izango den lurgunea ezinbestekoa dela aldarrikatu zuten UEMAkoek, Udalerrri Euskaldunen Udal Elkarteok. Usurbilgo Udala ere, Xabier Mikel Errekondo alkatea buru zela, Azpeitian ordezkaturata egon zen.

"Gaur egun, udalerrri euskaldunetan beraietan euskarak, onenean ere erdarekin konpartitu behar ditu eguneroko esparru formalak eta ez-formalak. Euskarak, ordea, biziko bada, nagusi

izango den lurgunea behar du, erdarek bezala. Eta hori da UEMAk duen erronka", azaldu zuen UEMAko lehendakari Jon Bollarrek, Zuzendaritza Batzordearen izenean. Gaineratu zenez, udalerrri euskaldunen eginkizuna garrantzia handikoa da euskararen normalizazio prozesuan.

Bestalde, Azpeitian egindako batzarrean, sei herri sartu ziren ofizialki UEMAn: Azpeitia, Ezkio-Itsaso (Gipuzkoa), Atxondo (Bizkaia), Mallabia (Bizkaia), Otxandio (Bizkaia) eta Areso (Nafarroa). Beste udalerrri batzuk bereganatzea da UEMAREN datozen urteetarako erronka.



UEMAKO ZUZENDARITZA ETA SARTU BERRI DIREN HERRIETAKO ORDEZKARIAK, AZPEITIKO UDALETXEAN. ARGAZKIA: NEREA URANGA.

Uztailaren 4a,

kontribuzioa ordaintzeko azken eguna

2008 urteko Ondasun Higiezinaren Gaineko Zerga ordaintzeko borondatezko epea amaitzear dagoenean, zergapekoei jakinarazten zaie uztailaren 4a borondatez ordaintzeko azken eguna izango dela.

Domiziliatu gabeko kasuetan zergapekoaren helbide fiskalera igorri dira agiriak, epea amaitu baino lehen, ordainketa Kutxa, Euskadiko Kutxa

edo Gipuzcoano banketxean, agiria aurkeztuz edo udal zergabilketan egin dezaten. Bestalde, Internet bidez ordainketa egitea dago, honako helbidean: www.euskadi.net, izapideak online, *Nire ordainketa online*.

Era berean, zergadunei jakinarazten zaie hurrengo urteetarako ordainketa banku edo kaxan egiten den kasuan agiria domiziliatzeko aukera izango duela.

Eguneko goardiako farmaziak

Ekainak 19, osteguna
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Ekainak 20, ostirala
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Ekainak 21, larunbata
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil*

Ekainak 22, igandea
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Ekainak 23, astelehena
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

Ekainak 24, asteartea
Rodriguez, Nagusia 42 atz Lasarte

Ekainak 25, asteazkena
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

Ekainak 26, osteguna
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

Ekainak 27, ostirala
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

Ekainak 28, larunbata
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

Ekainak 29, igandea
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Correa Farmazia (22:00-09:00), Perkaiztegi
kalea, 8 Hernani 943 33 60 22
**Usurbilen, soilik eguerdira arte*

Zubieta-Donostia TST autobusak

ASTEGUNETAN

Zubieta-Donostia
7:55* / 9:30(T) / 13:15(T)
14:35*(T) / 19:15(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)
7:15* / 9:00 / 12:45(T)
13:45* / 18:45

LARUNBATETAN

Zubieta-Donostia
8:15(T) / 12:45
15:15(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)
12:15(T) / 14:30(T) / 21:00(T)

JAI EGUNETAN

Zubieta-Donostia
11:25(T) / 13:30(T)
15:30(T) / 21:35(T)

Donostia-Zubieta

(Gipuzkoa plazatik)
11:00(T) / 13:00(T)
15:00(T) / 21:00(T)

T: Autobus aldaketa beharrezkoa da
*: Eskola egunetan / Tf. 943 36 17 40

Agenda !

Ekainak 18, asteazkena
Atez ateko bilketa sistemari buruzko hitzaldia: Puigpunyent herriko (Mallorka) esperientzia, bertako Udaleko zinegotzi Miquel Ramonen eskutik. 19:00etan Udarregin. Antolatzaila: Udala.

Ekainak 19, osteguna
- Musika Txokoko ikasleak, 17:15ean Udarregi ikastolan.

- Txan Magoa, 18:00etan frontoian. Sarrera: doan.

- Atez ateko sistemari buruzko hitzaldia, 18:30ean Santuenea elkartearen. Antolatzaila: Udala.

- Atez ateko sistemari buruzko hitzaldia, 20:00etan Sutegin.

Ekainak 21, larunbata
Erleak, produktuak, nola lortzen dira, zertarako, polinizazioaren garrantzia. 9:30ean Sutegin.

- Orniturinkus. Hotsa eta ahotsa. 22:30ean Dema plazan. Sarrera: doan.

Mintegiak eta ikastaroak, KzGunean

Ekaineko azken txanpa honetan, asko dira KzGunean antolatutako dituzten mintegiak. Hilabetea bukatu bitartean, goizez izango da zabalik KzGunea, 9:00etatik 13:00era. Segidan dituzue antolatutako dituzten ikastaroen xehetasunak. Uztailaren 1etik aurrera, ordea, arratsaldez irekiko dute KzGunea, 16:00etatik 20:00etara. Gogoan izan, abuztuaren itxita izango dela.

KZGUNEAN MINGEIAK

Komunikatu posta elektronikoa bidez (euskaraz)
Ekainak 20 ostirala, 9:00-11:00

Sinadura elektronikoa (euskaraz)
Ekainak 20 ostirala, 09:00-11:00

Bat-bateko mezularitza (euskaraz)
Ekainak 23/24, 09:00-11:00

Justizia ezagutu ezazu (euskaraz)
Ekainak 23 astelehena, 11:00-12:00

Foroak eta Laguntza (euskaraz)
Ekainak 23 astelehena, 12:00-13:00

Sinadura elektronikoa
Ekainak 24 asteartea, 11:00-13:00



EKAINEN GOIZEZ ETA UZTAILAEN ARRATSALDEZ IREKIKO DA KZGUNEAN.

Kontsumitzailea sarean (euskaraz)
Ekainak 27 ostirala, 09:00-11:00

www.eustat.es (euskaraz)
Ekainak 27 ostirala, 09:00-11:00

LORTU ZURE ZIURTAGIRIA
-Ekainak 25 asteazkena, 9:00-11:00
-Uztailak 4 ostirala, 16:00-18:00

KZGUNEAN, OINARRIZKO IKASTAROA (EUSKARAZ)
Uztailak 7-18
Astelehenetik ostiralera, 16:00-18:00

KzGunea Usurbil: Kale Nagusia, 37
Telefono zenbakia: 943 36 14 12
E-posta: tutor.usurbil@kzgunea.net
Webgunea: www.kzgunea.net

Igandean, Motzaren omenezko ekitaldia

Joxe Mari Arriaga *Motza* hil zela lau urte beteko dira ostegun honetan. Igande honetan, ikurrin berria jartzera abiatuko dira Haitzaundira. Goizeko 10:00etan abiatuko da mendi martxa.

Maskota egiten laguntzeko deialdia

Santixabel jaietarako, maskota egiten dabil herritar talde bat. Lagundu nahi duenak, astelehenetik ostiralera, 19:00-21:00 artean Ardi Beltz garagardotegi ondoko lokalera agertu besterik ez du.

Pintura erakusketa ikusteko azken egunak

Paisaiak eta Usurbilgo base-riak dira nagusi Jose Antonio Gorgojoren margoetan. Sutegin zabaldu duen erakusketa larunbatean amaituko da. Bisita-orduak: 17:00-20:30.

ALBISTEAK EDIZIO JARRAITUAN · ALDIZKARIA ON LINE · INKESTAK · FOROAK · POSTA

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

ERRAZKIN
Igeltseritza S.L.

Tel.: 649 435 470
Faxa: 943 372 679

K./ Nagusia 47. Behea A.
20170 USURBIL

ETXEBIZITZA

- Pisua salgai Muna Lurrán, 2 logela, komuna eta egongela sukaldearekin elkartua. Oso eguzkitsua. 65m2 guztiz berrituak. Altzariak barne, 250.000 euro. 688651103. Agentziaz ez
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Zubietan alokairuan pisu bat hartuko nuke urte osorako. 675709894
- Baserri bat hartuko genuke errentan bi lagunek. 656 703 814.
- Kaskoan pisu bat alokatzen dugu, garajea dauka. Abala eskatzen da. Deitu 19:00etatik 21:00ra 607582968 telefonora.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Zubietan 75 metro karratuko etxebizitza salgai. 2 logela, sala, komun bat, trastero txiki bat eta sukalde handi bat. Kanpokaldera ematen du etxe osoak eta bizilagunentzako aparkalekua dauka. 195.000 euro. 690290981.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berritu eta amueblatua. 49.800.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukalde, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziaz ez. 600645629
- Pisua salgai Atxegalden. 4 logela, bi komun, sukalde, egongela eta trasteroa. Berritua. 51.000.000 pezeta. 696 693 710.
- Etxebizitza salgai. 86m karratu erabilgarriak + 13m karratu balkoi(eguzkitsua), 3 logela, bainua, komuna, kalefazioa, trasteroa eta igogailua. 318.000 euro. Tf: 688670561.
- Apartamentu-duplex rustikoa saltzen du partikularrak. Zubietan Elizaren ondoan dago eta etxebizitza sartzeko moduan dago. 245.000 euro. 678084020.
- Etxea salgai Kale Nagusian. 90 m. Igogailua, garajea, trasteroa. 943361383.
- Pisua salgai. Santuenean, 16 zbkia 4. pisua, 30 milioitan (negoziagarria). 667802888.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Pisu bat edo etxe bat alokatu nahiko nuke. 650082049.

- Pisua alokatuko nuke Usurbilen. 661 702 708.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna, sukaldea, egongela eta trasteroekin. 685731792.

SALEROSKETAK / GARAJEAK

- Usurbilen alokairuan hartzeko garaje baten bila gabiltza. Furgoneta bat sartzeko modukoa izan behar du. 647299299.
- Volkswagen California bat daukagu salgai. 92. urtekoa, 2400eko motorra, konpondu berria... 650004264 edo 943243379.
- Citroen Picasso Diesel salgai. 4 urte. 617 24 26 60 (Nere).
- Hiru ateko Honda Civic salgai. Beti garajejan egondakoa. 620625823.
- 5 urte dituen Renault Megane Coupe bat daukat salgai. 637 760 852.

LANPOSTUAK

Lan-eskaintzak

- "Agiña Piperrak" enpresak, emakumei zuzendua. Uztailaren erdi aldera hasi eta urriarte lana egin nahi duenak piperrak ontziratzen azaldu dadila enpresatik goizeko 9:00etatik 13:00era. Laneko ordutegia goizeko 06:00etatik 14:00ak arte izango litzateke, astelehentik ostiralera.
- Irailean hasteko eta astean hamasei orduz (ordu eta erdi goizean eta bi ordu arratsaldetan), bi ume zaintzeko emakume euskaldun baten bila gabiltza. 635 755 666 edo 943 314 709.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.
- Astean 3 edo 4 egunez eta egunean 3 orduz (goizez ahal bada) pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko emakume euskaldun baten bila gabiltza. Ordutegian flexibilitatea izatea eta auto propioa izatea baloratuko da. 607233255 / 616273785.
- Astean bi egunetan etxeko lanak egin eta tarreak umea zaintzeko pertsona baten bila nabil. 627278907.
- DBHko klase eta batez ere matematikako klase partikularrak emateko pertsona euskaldun baten bila nabil. 670573438.

Lan-eskaerak

- 18 urteko neska usurbildar bat eskaintzen da uztailaren goizez edo arratsaldean haurrak zaintzeko. 621626500
- Aginaga sagardotegian zerbitzari bat behar dugu astebukaeratan lan egiteko. 943 366 710.

- Sukaldaria naiz, goizez egingo nuke lan, Usurbilen bizi naiz. Autoa dut. Esperientzia asko: 669243437
- LH edota DBHko ikasleei klase partikularrak emateko prest egongo al zinateke? Udarregi ikastolan, lan hori beteko luketen pertsonekin zerrrenda bat osatzen ari gara. Interesatuak pasa Ikastolatik.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. Egun osoko disponibilitatea. 679742413.
- Portalak eta eskailerak garbitzeko neska bat eskaintzen da. Esperientzia horrelako lanetan. 690 784 113.
- Etxeko lanak egiteko edo pertsona helduak zein haurrak zaintzeko emakume bat eskaintzen da. 608 406 984.

BESTELAKOAK / GALDUTAKOAK

- Euskal artzain txakurra daukagu emateko. Emea da eta bi hilabete ditu. Tel. 943.36.32.43
- Txandak baten jertsea galdu da, urdin argia eta Adidas markakoa. 10 urteko ume baten tamainakoa. 943 37 68 97.
- Belarra mozteko eta fardoak egiteko zerbitzua. Tel: 607457004 Dani.
- 1,5 metroko somierra eta koltxoia salgai. 943 36 65 89 telefono zenbakian.
- Usurbilen edo inguruan belardiak behar dira belarra ontzeko. Tlf: 607 45 70 04. 943 36 60 40. Dani.
- Musika ekipu bat salgai: mahaia, etapak, ahots efektuak... egokia talde baten lokalean jartzeko. Larra DJ 615713204.
- Euskal arrazako bi pottoka salgai: kalifikatuak eta udaberriean umea egingo dutenak. 653719176.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. Tf: 626 220925
- Kotxeko aulkitxoia salgai. Maxi Cosi Priori XP. 80 euro, erdi prezioan. 652 764 620.
- Egurrezko aulkiak salgai. Aritz egurrez eginitakoak. 943 36 20 49.
- Bigarren eskuko trikitixa bat erosiko nuke. 656 76 52 13.
- Argazki zaharrak berritzen eta txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net



Zorionak Haritz!

Ekainaren 21ean gure etxeko gizon-txo txikiak 3 urte beteko ditu. Zorionak Haritz, besarkada handi bat eta marrubizko muxuak zuretza-ko, arrea eta gurasoen partetik.



Sorgin Nagusia bahituta, nork egingo du aurten 'queimada'?
Penak sutan erre!
Altxa erratza! Altxa bihotza! eta zorionak goxoenak, Marisifña!
Beste sorginak.



Zorionak Udane!

Hona hemen gure printzesa! Ostegunean 6 urte egingo ditu eta Maider, guraso eta gainontzekoen partez muxu potolo bat eta besarkada handi bat. Ondo pasa!!

HILDAKOAK

Raimunda Tejedor Bermejo
Ekainaren 15an hil zen
83 urterekin. Kaleberri.



Oharra: *Jaiotzak*, Usurbilgo Bake Epaitegitik jasotako datuak. Merkatu Txiki-rako mezuak, zorion agurrak, hildakoen edota jaioberrien aipamenak orri honetan ikusi nahi badituzu, deitu bulego orduetan, telefono zenbakira: 943 360 321.
E-posta: erredakzioa@noaua.com

ORNITORRINKUS
 Malalen Lujanbio, Judith Montano eta Xabier Erkizia

Ekainak
21 larunbata
22.30h
Usurbilgo
dema plazan

auria igitea buda emanaldia
 Garretzi Iñautolan 501000 AB.

INAGURAZIOA: 19:30h. BILKETA: 10€ (18€). BILKETA: 10€ (18€). BILKETA: 10€ (18€).

MAHUKA
 arropa denda
 santixabeletako promozioa



% 20

☎ 943 361 106

kaffa



- % 100 Kolonbiako kafea alean edo eho berria etxera eramateko "La casa del cafe".
- Batido naturalak.
- Ezeizako tarta edo pastelak enkarguz.
- Sukalde tradizionalen eginiko otorduak prestatzen dira aurrez eskatuta.

Errekatziki, 2 · Tel.: 943 24 33 71 · USURBIL



Usurbilgo **Merkatari** eta **Ostalarien Elkarte**

USURBILGO BALKOlen APAINKETA LEHIAKETA

HURBILAGO, Usurbilgo merkatari eta tabernarien elkarteak, udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Industria, Merkataritza eta Turismo Sailaren laguntzaz, herria girotu eta bide batez herri bera apaintzeko asmoz, "Balkoi apainketaren II Lehiaketa" antolatu du.

PARTE HARTZEKO OINARRIAK

1. Usurbilgo edozein biztanle aurkeztu daiteke eta landu beharreko gaia eta erabili beharreko materialak libreak dira.
2. Ekainak 4tik Ekainak 28 bitarteko egunetan, ARRUTI Harategian izena eman behar du.
Partaide bakoitzari kartel bat emango zaio leihakide bezala.
3. Ekainak 28 eta uztailaren 1 bitartean, epaimahaiak, partehartzaile guztien balkoi eta lehioak, ikuskatuko ditu. Beraz, partaide bezala adierazteko kartela ikusgai egon beharko du.
4. Epaimahaia Pelex, egur artisaua, Santi Illarramendi, buztin artisaua, Iñaki Izagierre dekoratzailea eta Rosario Parrega Zaharren Egoitzako ordezkaria, HURBILAGO Elkarteko ordezkaria eta Usurbilgo udaleko ordezkari bat osatuko dute.
5. Epaimahaiak orokorrean duten itxura, kolorea, originaltasuna, herriarekiko erlazioa etabar hartuko ditu kontutan.
6. Hira sari egongo dira. Saria 500€tako izango da irabazlearentzat, 250€ bigarrenarentzat eta 150 € hirugarrenarentzat. Sari hauek

Sari hau(ek), Frontoian banatuko da uztailaren 2an, salda banaketa ondoren.

Balkoi saritu(et)an, uztailaren 4tik 13ra, irabazitako sariaren kartel bat jarriko da.